## BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA

## HAUTESKUNDE ARAUDIA

**1. artikulua.**

Araudi honek Bizkaiko Mendizale Federazioko Batzar Nagusiko eta Zuzendaritza Batzordeko kideak eta Federazioko lehendakaria aukeratzeko hauteskundeak arautuko ditu.

Araudi honetan ezartzen ez diren kasuetan, Euskadiko Kirolaren Legean, Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan, 2012ko otsailaren 19ko Kultura Sailburuaren Aginduan, zein arau horiek hauteskundeen arloan garatzeko ematen diren xedapenetan eta Federazioaren estatutuetan ezartzen dena bete behar da. Horien guztien osagarri gisa, Administrazio Prozeduraren arautegi orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hauteskunde erregimenaren arautegi berezian eta orokorrean ezartzen dena aplikatuko da.

**2. artikulua: Hauteskundeak deitzea.**

Bizkaiko Mendizale federazioko Presidenteak araudi hau indarrean sartzen denean deitu beharko ditu Batzar Orokorra hautatzeko hauteskundeak, hau da, araudia Euskadiko Kirol Elkarteen Erregistroan inskribatzen denean. Deialdiaren unetik, Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea funtzioetan egongo dira. Batzar Orokorra hautatzeko prozesuak bukaturik egon beharko du dagokion olinpiar jokoen urteko urriaren 31 baino lehen.

Egun horretatik aurrera, hauteskundeetarako deialdia zein horri dagokion araudia publikoki erakutsiko dira Bizkaiko Mendizale Federazioaren bulegoetan. Deialdiari ahalik eta

## FEDERACION BIZKAINA DE MONTAÑA

## REGLAMENTO ELECTORAL

**Artículo 1**

El presente Reglamento regulará las elecciones a miembros de la Asamblea, Junta Directiva y a Presidente o Presidenta de la Federación Bizkaina de Montaña.

En todo lo no previsto en el mismo se estará a lo dispuesto en la Ley del Deporte del País Vasco; en el Decreto 16/2006 de 31 de enero, de Federaciones Deportivas del País Vasco, en la Orden de 19 de febrero de 2012, de la Consejera de Cultura, así como en todas las disposiciones que se dicten en desarrollo de éstos en materia electoral; y en los Estatutos de la Federación. Supletoriamente será de aplicación lo dispuesto en la regulación general del Procedimiento Administrativo y en la regulación especial y general del régimen electoral vigente en el País Vasco.

**Artículo 2: Convocatoria de elecciones.**

El Presidente o Presidenta de la Federación Bizkaina de Montaña deberá convocar elecciones a la Asamblea a partir de la entrada en vigor de este reglamento, es decir, desde su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco. Desde la convocatoria, el Presidente o Presidenta y la Junta Directiva quedarán en funciones. El proceso para la elección de la Asamblea General deberá finalizar antes del 31 de octubre del correspondiente año olímpico.

A partir de dicha fecha quedará públicamente expuesta la convocatoria junto con el presente Reglamento en los locales de la Federación Bizkaina de Montaña, debiendo darse a la misma la

zabalkunde handiena eman behar zaio.

## I. TITULUA
## BATZAR NAGUSIRAKO HAUTESKUNDEAK

### I. KAPITULUA

**3. artikulua: Batzar Nagusiaren osaera.**

3.1. Bizkaiko Mendizale Federazioko Batzar Nagusia gobernu-organo gorena da eta Bizkaiko Mendizale Federazioko estamentu guztien ordezkariek osatuko dute.

Batzarrak, gehienez ere, Estatutuetan ezarritako kide kopurua izango du.

Hain zuzen ere, honako hauek osatuko dute:

a) Kirol klub eta elkarteen ordezkariak: Batzarreko kideen %80.

b) Kirolarien ordezkariak: Batzarreko kideen %10.

c) Teknikarien eta epaileen ordezkariak, talde bakoitzak federatuen artean duten kopuruaren arabera: Batzarreko kideen %10.

3.2. Inor ezin da talde biren ordezkari izan Batzar Nagusian.

**4. artikulua: Hauteskunde-egutegia.**

4.1. Hauteskunde Batzordeak egindako hauteskundeetarako deialdiaz batera,

máxima difusión.

## TITULO I:
## ELECCIONES A LA ASAMBLEA GENERAL

### CAPITULO I

**Artículo 3: Composición de la Asamblea General.**

3.1 La Asamblea General de la Federación Bizkaina de Montaña es el máximo órgano de gobierno y estará integrada por los representantes de los Estamentos de la Federación Bizkaina de Montaña.

El número máximo de componentes de la Asamblea será el establecido en los Estatutos.

En concreto estará integrada por:

a) Una representación para el estamento de clubes y agrupaciones deportivas del 80% del total de miembros de la Asamblea.

b) Una representación para el estamento de deportistas del 10% del total de miembros de la Asamblea.

c) Una representación, en base a su proporción entre los federados para el estamento de técnicos y técnicas y el estamento de jueces y juezas del 10% de los miembros de la Asamblea.

3.2 Ninguna persona podrá ostentar una doble representación en la Asamblea General.

**Artículo 4: Calendario Electoral.**

4.1. Junto con la convocatoria a las elecciones efectuada por la Junta

hauteskunde-egutegia eta behin-behineko hautesle-errolda argitaratuko da Bizkaiko Mendizale Federazioan dagoen iragarki-oholean. Gainera agiri horren nahikoa kopia utziko dira hautesleen eskura. Bertan, Batzar Nagusia osatuko duen kide kopurua eta kideok estamentuen arabera nola banatuko diren adieraziko da. Orobat, egutegiko bi (2) eguneko epea irekiko da Hauteskunde Batzordeari aurkeztu beharreko erreklamazioak aurkezteko. Hala ere, alegazioak erroldari buruzkoak badira, berauek egiteko epea bost (5) egun naturaletakoa izango da.

Electoral se procederá a la publicación del calendario y del censo electoral provisional en el tablón de anuncios sito en la sede de la Federación Bizkaina de Montaña, y a la puesta a disposición de los y las electoras suficientes copias, indicándose el número de miembros que compondrán la Asamblea General y su distribución por estamentos, abriéndose un plazo de dos (2) días hábiles para la presentación de las reclamaciones que se formulen ante la Junta Electoral. Sin embargo, si se trata de alegaciones sobre el censo provisional, el plazo para formularlas será de cinco (5) días naturales.

Hala badagokio, Kulturako Sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 37. artikuluko publizitatea emango zaio hauteskunde eguteagiari.

En su caso, la Federación dará al calendario electoral la publicidad que señala el artículo 37 de la Orden de 19 de febrero de 2012, de la Consejera de Cultura.

4.2. Behin epe hori igarota, Hauteskunde Batzordeak bi (2) egun balioduneko epea izango du erreklamazioak ebazteko, eta hartutako erabakiaren berri emango die errekurtsoa aurkeztu dutenei.

4.2. Transcurrido dicho plazo la Junta Electoral resolverá en el plazo de dos (2) días hábiles las reclamaciones formuladas e informará a los recurrentes de la decisión adoptada.

4.3. Zazpi (7) egun naturaleko epea irekiko da, estamentu bakoitzeko ordezkari izan nahi duten hautagaiak aurkezteko.

4.3. Apertura de un plazo de siete (7) días naturales para la presentación de candidaturas a representantes de los diferentes estamentos.

Hautagai-zerrendaren batek konpontzeko moduko akatsik baldin badu, eskatu egingo zaio jakinarazitako akats horiek bi egun balioduneko konpontzeko.

Si alguna candidatura contiene errores que son subsanables se requerirá a la misma que se subsanen los errores notificados en el plazo de dos días hábiles.

4.4. Hautagai-zerrendak aurkezteko epea amaitu eta egun baliodun bat geroago, hautagaien behin-behineko zerrendak argitaratuko dira.

4.4. Un día hábil después de terminado el plazo para la presentación de candidaturas se publicarán las listas provisionales de candidatos.

4.5. Egutegiko bi (2) eguneko epea irekiko da, aurkeztu diren hautagaien aurkako inpugnazioak aurkezteko.

4.5. Apertura de un plazo de dos (2) días hábiles para la presentación de impugnaciones a las candidaturas presentadas.

4.6. Behin epe hori igarota, Hauteskunde

4.6. Transcurrido dicho plazo la Junta

Batzordeak lau (4) egun naturaleko epea izango du erreklamazioak ebazteko; hartutako erabakiaren berri emango die errekurtsoa aurkeztu dutenei, behin betiko hautagai-zerrendak argitaratuko dira eta Hauteskunde Mahaiaren osaera erabakiko da, 13. artikuluan ezartzen denarekin bat.

Electoral resolverá las reclamaciones en el plazo de cuatro (4) días naturales, e informará a los recurrentes de la decisión adoptada, publicándose las candidaturas definitivas y designándose la composición de la mesa electoral según lo dispuesto en el artículo 13º.

4.7. Behin betiko hautagai-zerrendak argitaratu eta hurrengo egutegiko lau (4) egunen barruko epean ezarriko da bozketa egiteko eguna; dena den, bozketa egunean ezin da egon proba edo lehiaketa ofizialik, ez probintziakorik ez autonomia-erkidegokorik.

4.7. Se fijará una fecha entre los cuatro (4) días hábiles siguientes para celebrar las votaciones, no pudiendo celebrarse el día fijado para las elecciones, pruebas o competiciones deportivas de carácter oficial y de ámbito provincial o autonómico.

4.8. Hauteskundeak egin eta hurrengo egun baliodunean, hauteskundeen behin-behineko emaitzak argitaratuko dira.

4.8. Al día siguiente hábil tras las elecciones se publicarán los resultados electorales provisionales.

4.9. Egutegiko bi (2) eguneko epea irekiko da behin-behineko emaitzen aurkako inpugnazioak aurkezteko.

4.9. Apertura de un plazo de dos (2) días hábiles para la presentación de impugnaciones a los resultados provisionales.

4.10. Behin epe hori igarota, Hauteskunde Batzordeak lau (4) egun naturaleko epea izango du erreklamazioak ebazteko; hartutako erabakiaren berri emango die interesdunei eta Batzar Nagusiko kide berriak izendatuko ditu. Izendapena Bizkaiko Mendizale Federazioaren iragarki-oholean argitaratu behar da, bai eta web gunean ere, horrelakorik egonez gero. Hautesleentzako eskuragarri jarriko dira, halaber, kasuan kasuko dokumentuen nahikoa kopia.

4.10. Transcurrido dicho plazo la Junta Electoral resolverá las reclamaciones en el plazo de cuatro (4) días naturales, informando a los interesados de la decisión adoptada y proclamando a los nuevos miembros de la Asamblea General, lo que deberá ser objeto de publicación en el tablón de anuncios de la Federación Bizkaina de Montaña, así como en su página web, si contara con ella. Se pondrá, asimismo, a disposición de los y las electoras suficientes copias de los documentos correspondientes.

**5. artikulua: Hautesle-errolda.**

5.1. Hautesle-errolda Federazioaren agiri bat da eta bertan honako hau jasoko da: hautesle eta hautagai izateko estatutuetan eta indarrean dauden lege-xedapen guztiak betetzen dituzten eta Bizkaiko Mendizale Federazioan botoa emateko eskubidea aldi baterako edo behin betiko kenduta ez duten pertsona fisiko eta juridiko guztien zerrenda.

**Artículo 5: Censo electoral.**

5.1. El censo electoral es el documento federativo que contiene la relación de todas aquellas personas físicas y jurídicas que reuniendo los requisitos señalados en los estatutos y en las disposiciones legales vigentes, para ser electores y elegibles, no se hallen privados, temporal o definitivamente, del derecho de sufragio en la Federación

Bizkaina de Montaña.

Hautesle-erroldan izena emanda dauden pertsona fisikoen kasuan, honako datu hauek jasoko dira: izen-abizenak, NAN zenbakia, jaiotze-eguna, sexua eta federazioaren lizentziaren zenbakia. Pertsona juridikoen kasuan, berriz, inskripzioan hauek jasoko dira: sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroko inskripzio-zenbakia eta federazioko afiliazio-zenbakia.

La inscripción en el censo electoral incluirá en el caso de las personas físicas, nombre, apellidos, número de D.N.I., fecha de nacimiento, sexo y número de licencia federativa. En el caso de las personas jurídicas, la inscripción incluirá la denominación social, el Número de Identificación Fiscal, el número de inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco y el número de afiliación federativa.

5.2. Hauteskunde Batzordeak prestatu eta onetsi behar du hautesle-errolda. Batzorde Kudeatzaileak dei egingo dio Hauteskunde Batzordeari hauteskunde-prozesua has dezan eta Hauteskunde Batzordeak, ondoren, Bizkaiko Mendizale Federazioan jasota dauden errolda, fitxategi, estatistika-datu, zigorren erregistro eta gainerako agiriak dituela, hautesle-errolda behin-behinean onesteko erabakia hartu beharko du, hauteskundeak deitu eta hauteskunde-egutegia prestatzearekin batera.

5.2 Su confección y aprobación corresponde a la Junta Electoral, quién tras ser citada por la Comisión Gestora para dar inicio al proceso electoral y teniendo a su disposición todos los censos, ficheros, datos estadísticos, registros de sanciones y demás documentación que obre en la Federación Bizkaina de Montaña deberá adoptar el acuerdo de su aprobación provisional de forma simultanea a la convocatoria de las elecciones y a la confección del calendario electoral.

5.3. Hautesle-errolda atalka antolatu behar da, estamentuen arabera. Hortaz, hauek egongo dira:

5.3 El censo electoral deberá ser ordenado en secciones, por estamentos. Así existirá:

a) Kirol klub eta elkarteen atala. Bertan, kirol klub eta elkarte guztiak egongo dira, baina horretarako baldintza hauek bete behar dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan izena emanda egon behar dira; Bizkaiko Mendizale Federaziora atxikitzen dituen lizentzia indarrean izan behar dute; Bizkaiko Mendizale Federazioaren estatutuetan ezartzen diren gainerako eskakizunak bete behar dituzte; eta hauteskundeak egiten diren denboraldian bertan eta aurre-aurreko denboraldian kirol jardueraren bat egin behar izan dute. Hauteskundeak egiten diren denboralditzat hartzen da hauteskunde-prozesua abian jartzen denekoa.

a) Sección de Clubes y Agrupaciones deportivas, que incluirá a todos los clubes y agrupaciones deportivas que, figurando inscritos en el Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco, posea licencia en vigor, que le adscriba a la Federación Bizkaina de Montaña, en la fecha de la convocatoria de las elecciones, cumplan los demás requisitos establecidos en los estatutos de la Federación Bizkaina de Montaña, y hayan realizado alguna actividad deportiva durante la temporada deportiva en la que se celebren las elecciones y la temporada deportiva inmediatamente anterior. Se computará como temporada de celebración de elecciones la temporada en la que se da inicio al

proceso electoral.

Corresponde a la Junta Electoral aplicar el voto ponderado que corresponde a cada club o agrupación deportiva, si existe dicha previsión de voto estatutariamente.

Hauteskunde Batzordeari dagokio Kirol klub edo elkarte bakoitzari dagokion boto haztatua aplikatzea, estatutuetan boto hori aurreikusita badago.

Kirol klub edo elkarte bakoitzak honako boto kopurua eman ahal izango du, kirolari federatu kopurua aintzat hartuta:

Cada club o agrupación deportiva podrá emitir el siguiente número de votos, en virtud del número de sus deportistas federados:

- 15 eta 150 lizentziaren artean = ordezkari bat.

- De 15 a 150 deportistas federados = 1 voto;

- 151 eta 400 lizentziaren artean = bi ordezkari.

- De 151 a 400 deportistas federados = 2 votos;

- 400 lizentziak baino gehiago artean = hiru ordezkari

- Más de 400 deportistas federados = 3 votos;

Inongo klub edo elkartek ezingo ditu boto haztatuaren bidez eskuratu beste kirol entitate baten boto-kopurua halako hiru.

Ningún club o agrupación deportiva podrá ostentar mediante voto ponderado más del triple de votos que otra entidad deportiva.

b) Teknikarien atala. Bertan, botoa emateko egunean hamasei (16) urte beteta dituzten teknikari guztiak egongo dira, baldin eta hauteskundeen denboraldian lizentzia indarrean badute eta aurre-aurreko urtean ere izan badute, lizentziaren maila edozein dela ere.

b) Sección de Técnicos y Técnicas , que incluirá a todos los técnicos que hayan cumplido 16 (dieciséis) años en la fecha de la votación, con licencia en vigor durante la temporada de las elecciones y que la hayan tenido, también, el año inmediatamente anterior, con independencia de la categoría de su licencia.

c) Epaileen atala. Bertan, botoa emateko egunean hamasei (16) urte beteta dituzten epaile guztiak egongo dira, baldin eta hauteskundeen denboraldian

c) Sección de Jueces y Juezas, que incluirá a todos los jueces, que hayan cumplido 16 (dieciséis) años en la fecha de la votación, con licencia en vigor

lizentzia indarrean badute eta aurre-aurreko urtean ere izan badute, lizentziaren maila edozein dela ere.

durante la temporada de las elecciones y que la hayan tenido, también, el año inmediatamente anterior, con independencia de la categoría de su licencia.

d) Kirolarien atala. Bertan, botoa emateko egunean hamasei (16) urte beteta dituzten kirolari guztiak egongo dira, baldin eta hauteskundeen denboraldian lizentzia indarrean badute eta aurre-aurreko urtean ere izan badute.

d) Sección de deportistas, que incluirá a todos los deportistas que hayan cumplido 16 (dieciséis) años en la fecha de la votación, con licencia en vigor durante la temporada de las elecciones y que la hayan tenido, también, el año inmediatamente anterior.

5.4. Pertsona bat ezin da inola ere hautesle-erroldako atal bitan egon. Hori gertatuz gero, egoera horretan dagoen pertsonak idatziz jakinarazi behar dio Hauteskunde Batzordeari zein estamentutan sartzea nahi duen; jakinarazpena hautesle-erroldaren behin-behineko onespenaren ondoko bost (5) egun naturaletan egin behar du gehienez ere. Aukera hori erabili ezean, lizentzia gutxien duen estamentura atxikiko dute automatikoki.

5.4. En ningún caso se podrá figurar en dos secciones distintas del censo electoral. En caso de ocurrir esta circunstancia, el afectado, deberá comunicar a la Junta Electoral, por escrito y en un plazo máximo de cinco (5) días naturales, tras de la aprobación provisional del censo electoral el estamento en el que desea ser incluido. De no ejercer dicha opción, será adscrito automáticamente al estamento con menor número de licencias.

5.5. Hauteskunde Batzordeak onartzen duen hautesle-errolda Bizkaiko Mendizale Federazioaren bulegoetako iragarki-oholean egongo da, interesdun guztiek ikusteko moduan. Horrekin batera, erroldaren kopiak emango zaizkie hauteskundeetara aurkeztu nahi duten hautesle guztiei.

5.5. El censo electoral que resulte aprobado por la Junta Electoral estará a disposición de todos los interesados en el tablón de anuncios situado en los locales de la Federación Bizkaina de Montaña. De igual forma se facilitarán copias del mismo a todas aquellos electores que se encuentren interesados por presentar su candidatura a las elecciones.

5.6. Hautesle-erroldan akatsak daudelako, zenbait datu adierazi ez direlako edo txarto jaso direlako alegazioak aurkeztu nahi izanez gero, alegazio horiek Hauteskunde Batzordeak hautesle-errolda behin-behinean onartu eta hurrengo bost (5) egun naturaleko epearen barruan aurkeztu behar dira. Behin epe hori igarota, aurkeztutako alegazioak Hauteskunde Batzordeak berak ebatziko ditu: horretarako beharrezkotzat jotzen dituen erabakiak hartuko ditu eta hautesle-errolda behin betiko onartzea erabakiko du.

5.6. Las alegaciones que se presenten por errores, omisiones o datos incorrectamente indicados en el censo electoral deberán efectuarse necesariamente durante los cinco (5) días naturales siguientes a la aprobación provisional del censo por parte de la Junta Electoral. Transcurrido dicho periodo de tiempo, las alegaciones que hubieren sido realizadas serán resueltas por la propia Junta Electoral quien, adoptando los acuerdos que considere oportunos al respecto, acordará la aprobación definitiva del censo electoral.

5.7. Hauteskunde-prozesuen hurrengo faseetan ezin da behin betiko onartu den hautesle-errolda inpugnatu, prozesua amaitutakoan jurisdikzio-bidean edo Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean egin daitezken jarduketak gorabehera.

5.7. Contra el acuerdo definitivo de aprobación del censo electoral no cabrá realizar impugnaciones de ningún tipo en fases posteriores del proceso electoral, sin perjuicio de las actuaciones que pudieren acometerse a la finalización del proceso en vía jurisdiccional o ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

## II. KAPITULUA HAUTESKUNDE BATZORDEA

## CAPITULO II LA JUNTA ELECTORAL

**6. artikulua: Hauteskunde Batzordearen osaera, eskumenak eta funtzionamendua**

6.1. Hauteskunde Batzordea Bizkaiko Mendizale Federazioak izendatuko du, hauteskunde-prozesua hasi aurretik egindako azken bileran.

6.2. Hauteskunde Batzordeak hiru (3) kide titular izango ditu eta ordezkoak ere aukeratuko dira: gutxienez hiru (3) izango dira ordezkoak.

6.3. Kargua uzten duen Batzar Nagusiak izendatuko ditu Hauteskunde Batzordeko kideak. Kideok hautesle izan behar dira baina ez dute egingo den hauteskunde-prozesuen hautagai izateko asmorik izan behar. Horretarako, gai-zerrendan Hauteskunde Batzorde berria aukeratzea aurreikusita duen Batzar Nagusirako deialdia egin ondoren, Hauteskunde Batzordeko kide izan nahi duten hautesleek asmo horren berri eman behar diote Bizkaiko Mendizale Federazioaren idazkari nagusiari, gutxienez ere Batzar Nagusia egiteko eguna baino zortzi (8) egun natural lehenago, idazkariak behar den besteko aurrerapenarekin jakinaraz diezaien hautagaiak zein diren.

6.4. Batzar Nagusian bozketa egin ondoren, boto gehien lortzen duten hautesleak aukeratuko dira Hauteskunde Batzordeko kide. Bozketan izandako

**Artículo 6: Composición, competencias y funcionamiento de la Junta Electoral**

6.1. La Junta Electoral será designada por la Asamblea General de la Federación Bizkaina de Montaña, en la última reunión que celebre antes del inicio del proceso electoral.

6.2. La Junta Electoral estará compuesta por tres (3) miembros titulares y un número nunca inferior a tres (3) elegidos como suplentes.

6.3. Sus componentes serán designados por la Asamblea General entre aquellos electores que no teniendo intención de presentarse como candidatos en el inmediato proceso electoral resulten elegidos por la Asamblea General saliente. A tal fin, una vez convocada la Asamblea General en cuyo orden del día se incluya la designación de nueva Junta Electoral, los electores interesados en formar parte de la misma deberán comunicar su intención al Secretario General de la Federación Bizkaina de Montaña con al menos ocho (8) días naturales de antelación a la fecha de celebración de la Asamblea, a fin de poder comunicar a los asambleístas con la debida antelación la identidad de los candidatos existentes.

6.4. Tras votarse en el seno de la Asamblea General, la designación recaerá en aquellos electores que obtengan mayor número de votos,

hurrenkera jasota utzi behar da, ordezko izango direnak ere modu berean izendatzearren. Hautagai kopurua hautatu beharreko kide kopuruaren berdina edo txikiagoa balitz, bozketarik gabe izendatuko lirateke.

debiendo quedar constancia del orden que obtengan en el escrutinio a efectos de designar de igual forma a los vayan a resultar suplentes. Si hubiere igual o menor número de candidatos que el de miembros a elegir se procederá a proclamarles sin necesidad de celebrar elección.

6.5. Hiru (3) kide titularren eta hiru (3) ordezkoen karguak betetzeko boluntario nahikorik ez balego, falta direnak zozketa publiko bidez aukeratuko lirateke; zozketa Batzar Nagusian bertan egingo da, hautagai izango ez diren hautesleen artean.

6.5. En caso de que no hubiere personas voluntarias en número suficiente como para cubrir los tres (3) puestos titulares y al menos tres (3) suplentes, se elegirán los que resten por sorteo público a celebrar en el seno de la propia Asamblea General entre aquellos electores que no vayan a ser candidatos.

6.6. Adierazitakoarekin bat, Hauteskunde Batzordeko kideek kargua onartu behar dute. Nolanahi ere, federatuek ez dute kargua onartu behar, baldin eta behar bezala frogatzen badute laneko, familiako eta osasun arloko arrazoiak zein arrazoi akademikoak eta antzekoak direla-eta karguak dakartzan eginkizunak betetzeko ezinduta daudela. Baldintza horiek betez gero, karguari uko egiten dioten federatuek ez dute diziplinazko erantzukizunik izango.

6.6. De acuerdo a lo señalado, los miembros de la Junta Electoral deberán aceptar el cargo, quedando dispensados de dicha obligación y exentos de responsabilidad disciplinaria aquellos federados que por probadas razones laborales, familiares, académicas, de salud o análogas se encuentren impedidos para cumplir adecuadamente sus funciones.

6.7. Kide titular hautatu direnen artetik zaharrenak beteko ditu lehendakari lanak; idazkaria, berriz, gazteena izango da. Horiek ez baleude, ordezkoek beteko lituzkete bi horien karguak; ordezkoak irizpide bera erabilita aukeratuko lirateke.

6.7. Entre los miembros designados como titulares actuará como Presidente el de mayor edad, y como Secretario el más joven. En caso de ausencia de los mismos, dichos puestos serán suplidos con igual criterio por sus suplentes.

6.8. Hauteskunde Batzordeko kide titularren artean karguren bat hutsik geratuz gero, ordezkoek beteko dituzte karguok, Batzar Nagusiak hautatu dituen hurrenkeran.

6.8. Las vacantes que se produzcan entre los miembros titulares de la Junta Electoral serán cubiertas por los miembros suplentes, en el orden en que han sido designados por la Asamblea General.

6.9. Hauteskunde Batzordeko kideen artean ez da, inolaz ere, Biltzar Orokorrean, Zuzendaritza Batzordean edo Presidentzian hautagai gisa aurkeztuko den inor izango. Debeku horrek indarra izango du, baita

6.9. Las personas que ejerzan como miembros de la Junta Electoral no pueden ser candidatos en los procesos de elección de la Asamblea General, Junta Directiva o Presidencia. Esta prohibición subsistirá aunque dimitan

hauteskunde-organo horretan dimisioa eman ondoren ere.

6.10. Hauteskunde Batzordeak Bizkaiko Mendizale Federazioaren idazkariaren laguntza izango du eta, halakorik egonez gero, aholkulari juridikoarena ere bai. Hauteskunde Batzordeko kideek ordainsariak jaso behar dituztela erabaki dezake Bizkaiko Mendizale Federazioaren Batzar Nagusiak, betiere kideok izendatu aurretik.

6.11. Eskumenak: Hauteskunde Batzordearen eskumena izango da hautesle-errolda, hautagaien aurkezpena eta aldarrikapena eta Batzar Nagusiko kideen edo Bizkaiko Mendizale Federazioko lehendakariaren aldarrikapena direla-eta izan daitezkeen gorabeherez arduratzea eta gorabeherok ebaztea, bai eta hauteskundeak egiteari nahiz horien emaitzei zuzenean eragiten dieten gainerako gai guztiei buruz erabakitzea ere.

6.12. Aurreikuspen faltagatik edo araudian jasotakoaren interpretazioagatik arazorik sortzen bada, eta arazo horren konponbidea araudi honetan jasota ez badago, Hauteskunde Batzordeak hartuko du arazo horiei buruzko erabakia, hauteskundeetarako ezarrita dagoen eguna baino lehen.

6.13. Funtzionamendua: Hauteskunde Batzordeak, dituen eginkizunak betez, Bizkaiko Mendizale Federazioaren bulegoetan egingo ditu bilerak. Nolanahi ere, kasu berezietan, eta batzordekideek aho batez hala erabakiz gero, bilerak beste lekuren batean egin litezke.

6.14. Bilera balio osoz eratzeko, gutxienez kide bi bertaratu behar dira. Batzar Nagusiko kide bat ere ez bada bilerara agertzen, hauteskunde-prozesuak aurrera jarrai dezan beharrezkoak diren presazko neurriak hartuko ditu Batzorde Kudeatzaileak;

después los miembros de tal órgano electoral.

6.10. La Junta Electoral estará asistida por el Secretario y el Asesor Jurídico de la Federación Bizkaina de Montaña, si lo hubiere. Sus miembros podrán ser remunerados si así lo acuerda la Asamblea General de la Federación Bizkaina de Montaña previamente a su designación.

6.11 Competencias: La Junta Electoral tendrá competencia para conocer y resolver las incidencias que se produzcan sobre el censo electoral, presentación y proclamación de candidatos, proclamación de miembros de la Asamblea General, Presidente de la Federación Bizkaina de Montaña, así como la decisión de cualesquiera otras cuestiones que afecten directamente a la celebración de las elecciones y a sus resultados.

6.12. Cualquier otra cuestión que pudiera suscitarse, no recogida en el presente reglamento electoral, por inexistencia de previsión al respecto o por motivo de interpretación de las existentes, serán resueltos por la Junta Electoral, antes del día fijado para las elecciones.

6.13. Funcionamiento: La Junta Electoral mantendrá sus reuniones, ejerciendo sus funciones, en los locales de la Federación Bizkaina de Montaña, excepto en aquellos casos excepcionales en los que mediando acuerdo unánime de sus componentes se mantengan en otros locales.

6.14. Para su constitución válida será necesaria la presencia de, al menos, dos de sus miembros. En aquellos casos extraordinarios en los que ninguno de los miembros de la Junta Electoral acuda a la correspondiente sesión, la Comisión Gestora arbitrará las medidas urgentes

neurriok, gero, Hauteskunde Batzordeak berretsi behar ditu.

oportunas a fin de que el proceso electoral siga su cauce, debiendo ser ratificadas posteriormente por la Junta Electoral.

6.15. Hauteskunde Batzordeko idazkariak Batzordeak egiten dituen bilera guztien akta jaso behar du, eta bilerara bertaratutako guztiek sinatu behar dute.

6.15. De cuantas sesiones celebre la Junta Electoral se levantará la correspondiente acta por el Secretario de la Junta, que será firmada por todos los asistentes.

6.16. Ahal den guztietan, bileran hartutako erabakiak banan-banan jakinarazi behar zaizkie interesdunei; edozelan ere, Bizkaiko Mendizale Federazioaren iragarki-oholean argitaratu behar dira beti. Hauteskunde Batzordeak, presazkoa denean eta betiere jakinarazpena jasoko dela bermatuta badago eta kideek berariaz onartuz gero, posta arrunta, posta elektronikoa, faxa, bideokonferentzia eta antzeko bitarteko teknikoak erabil ditzake erabakiak jakinarazteko. Arestian azaldutako bideetako bat erabiltzea erabakiko balitz, Hauteskunde Batzordeko idazkariak, Bizkaiko Mendizale Federazioko administrazio-zerbitzuek lagunduta, bilerari dagokion akta idatziko luke eta akta horri gutunen, faxen eta antzeko agirien originalak erantsiko lizkioke.

6.16. Siempre que sea posible, los acuerdos deberán ser notificados individualizadamente a los interesados, publicándose, en todo caso, en el tablón de anuncios de la Federación Bizkaina de Montaña. En caso de urgencia, y siempre que exista garantía de recepción y así lo acepten expresamente sus miembros, la Junta Electoral podrá comunicar sus decisiones mediante la utilización de correo postal, correo electrónico, fax, por conferencia, videoconferencia y medios técnicos análogos. En este supuesto, el Secretario de la Junta Electoral redactará, con el auxilio de los servicios administrativos de la federación Bizkaina de Montaña, el acta correspondiente acompañando a la misma los originales de las cartas, fax y documentos análogos.

6.17. Hauteskunde Batzordearen erabakiak betearazleak dira eta botoen gehiengoz hartuko dira. Botoetan berdinketa badago, lehendakariaren botoak erabakiko du. Gehiengoaren erabakiaren aurka emandako botoak, betiere boto-emaile bakoitzak bere izenean arrazoitzen baditu, Zuzenbidearen kontrako erabakiak hartzeak erakar ditzakeen erantzukizunetik salbuetsiko ditu boto-emaile horiek.

6.17. Las decisiones de la Junta Electoral son ejecutivas y se formarán por mayoría de votos. En caso de empate, el voto del Presidente tendrá carácter dirimente. Los votos contrarios a la mayoría, siempre que sean nominativamente motivados, eximirán de la responsabilidad que pudiere derivarse de la adopción de acuerdos contrarios a Derecho.

6.18. Hauteskunde Batzordearen erabakiaren aurkako errekurtsoa aurkez dakioke batzordeari berari, egutegiko bi (2) eguneko epean. Epea jakinarazpena egiten den edo, hala badagokio, argitaratzen den egunaren biharamunetik

6.18. Contra las decisiones de la Junta Electoral se podrá interponer recurso en primera instancia ante la propia Junta Electoral, en el plazo de dos (2) días hábiles. Dicho plazo se contará desde el siguiente a su notificación, o en su caso,

hasiko da zenbatzen.

6.19. Errekurtso horien ebazpenak errekurritu nahi badira, interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari aurkez diezazkiokete, zazpi (7) egun naturaleko epean; aurreko kasuan bezala zenbatuko da epea.

6.20. Batzar Nagusirako eta Lehendakaritzarako hauteskunde-prozesuak amaitu ondoren, Hauteskunde Batzordea karguan mantenduko da lau urte bete arte, hau da, hurrengo Olinpiada jokatuko den urteko Hauteskunde Batzorde berria izendatu arte. Hori horrela bada ere, Batzar Nagusiak, epe hori amaitu baino lehen, kargutik ken dezake Hauteskunde Batzordea eta beste bat izendatu.

6.21. Bizkaiko Mendizale Federazioko Batzar Nagusian hutsik dauden karguak betetzeko hauteskunde partzialak egin beharko balira, berriro ere deituko litzateke Hauteskunde Batzordea. Deialdia Bizkaiko Mendizale Federazioko lehendakariak, horren ordezkoak edo Batzar Nagusiko kideen % 5ek egin behar du, Federazioaren Estatutuetan ezarrita dagoen prozedurarekin bat.

6.22. Bizkaiko Mendizale Federazioak Batzordearen eskura jarriko ditu Federazioak dauzkan giza baliabide eta baliabide material guztiak, Batzordeak bere eginkizunak bete ahal izan ditzan, hauteskunde-prozesua ondo egin ahal izan dadin eta prozesu horrek behar besteko zabalkundea izan dezan.

## III. KAPITULUA
## ERREKURTSO SISTEMA

**7. artikulua: Errekurtsoak aurkeztea.**
Aurreko artikuluan ezartzen denarekin bat, errekurtsoak aurkez daitezke

publicación.

6.19. Las resoluciones de dichos recursos serán recurribles ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el plazo de siete (7) días naturales, contados de igual forma que en la instancia anterior.

6.20. Una vez concluidos los procesos electorales a la Asamblea General, y Presidencia, mantendrá sus funciones hasta completar un periodo de cuatro años, es decir, hasta la designación de nueva Junta Electoral para el proceso electoral correspondiente al siguiente año olímpico; sin perjuicio de que la Asamblea General pueda destituirla y nombrar otra antes de la conclusión de dicho periodo.

6.21. Si fuere necesario realizar elecciones parciales para cubrir posibles vacantes en la Asamblea General de la Federación Bizkaina de Montaña, la Junta Electoral será nuevamente citada por el Presidente de la Federación Bizkaina de Montaña, su sustituto, o bien por el 5% de los miembros de la Asamblea, de acuerdo con el procedimiento establecido en los Estatutos Federativos.

6.22. A fin de poder efectuar sus funciones la Federación Bizkaina de Montaña pondrá a disposición de la Junta todos sus recursos humanos y materiales al objeto de posibilitar un correcto proceso electoral y conseguir una difusión suficiente del mismo.

## CAPITULO III
## SISTEMA DE RECURSOS

**Artículo 7: Interposición de Recursos.**
De acuerdo a lo establecido en el artículo anterior, contra los acuerdos adoptados

Hauteskunde Mahaiak edo Hauteskunde Batzordeak hartzen dituzten erabakien aurka. Errekurtsoak Hauteskunde Batzordeari berari zuzendu behar zaizkio, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenekoak izango diren errekurtsoak izan ezik. Errekurtsoak aurkezteko egutegiko bi (2) eguneko epea dago jakinarazpenaren edo, hala badagokio, argitarapenaren egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitu eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, erabakiak edo ebazpenak irmoak izango dira.

por la Mesa Electoral o por la Junta Electoral podrán interponerse recursos que deberán dirigirse a la propia Junta Electoral, salvo los que competan al Comité Vasco de Justicia Deportiva, en el plazo de dos (2) días hábiles desde su notificación, o en su caso, publicación. Transcurrido dicho plazo sin haber sido interpuesto recurso, los acuerdos o resoluciones serán firmes

**8. artikulua: Errekurtsoak ebaztea.**

8.1. Hauteskunde Batzordeak gehienez ere lau (4) egun naturaleko epea izango du errekurtsoetan azaldutakoari buruz ebazteko. Ebazpena ematerakoan hiru aukera ditu: errekurtsoan eskatzen dena osorik baiestea, zati bat baiestea, edo errekurtsoa ez onartzea ere bai, baldin eta formazko akats konponezinik badago.

8.2. Aurreko puntuan zehazten den epea amaitu eta errekurtsoa ebatzi ez bada, errekurtsoa Administrazioaren isiltasunez ezetsita dagoela ulertuko da eta zabalik geratuko da Kirol Justiziako Euskal Batzordera jotzeko bidea.

8.3. Hauteskundeen inguruko errekurtsoak ebazten dituzten Hauteskunde Batzordearen ebazpenek federazio-bidea amaituko dute. Ebazpenon aurka, ostean, errekurtsoa aurkez dakioke Kirol Justiziako Euskal Batzordeari. Azken errekurtso hori aurkezteko egutegiko zazpi (7) eguneko epea egongo da errekurtsoa ezesteko ebazpena ematen denetik edo errekurtsoa ebazteko epea ebatzi gabe amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

8.4. Aurreko artikuluan aipatzen diren erabakiek edo jakinarazpenek pertsona fisiko edo juridiko baten bidezko eskubideak edo interesak ukitzen badituzte, bada, orduan, pertsona fisiko edo juridiko hori legitimatuta egongo da

**Artículo 8: Resolución de recursos.**

8.1. La Junta Electoral dictará resolución en el plazo máximo de cuatro (4) días naturales, estimando, en todo o en parte, o desestimando, las pretensiones formuladas en los recursos, pudiendo también declarar su in admisión cuando así procediere por defecto insubsanable de forma.

8.2. Si transcurrido el plazo señalado en el punto anterior, el recurso no hubiere sido resuelto se entenderá que en virtud del silencio administrativo negativo se considerará desestimado, quedando expedita la vía del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

8.3 Las resoluciones de la Junta Electoral que resuelvan recursos electorales agotan la vía federativa, siendo susceptibles de recurso posterior ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva, que deberá ser interpuesto en el plazo de siete (7) días hábiles a contar desde la resolución desestimatoria o desde la fecha en que se agote el plazo para resolver sin haberlo hecho.

8.4. Estarán legitimados para recurrir ante la Junta Electoral todas aquellas personas, físicas o jurídicas, cuyos derechos o intereses legítimos se encuentren afectados por los acuerdos o resoluciones a los que se refiere el

Hauteskunde Batzordeari errekurtsoa aurkezteko.

artículo anterior.

**9. artikulua: Errekurtsoak izapidetzea.**

9.1. Errekurtsoa baiesteak ondorioak eragiten badizkie hirugarren batzuei beren bidezko eskubide eta interesetan, Batzorde Kudeatzaileak edo errekurtsoa aurkeztu zaion beste edozein organok beharrezko informeak batu edo pertsona hauek entzun ahal izango ditu.

9.2. Denbora gehiago itxaron gabe, errekurtsoa aurkeztu zaion organoak Hauteskunde Batzordeari bidaliko dizkio bai interesdunek aurkeztutako alegazioak, jatorrizko espedientearekin batera, bai Batzorde Kudeatzailearen txostena bera.

**Artículo 9: Tramitación de recursos.**

9.1. La Comisión Gestora u otro órgano ante el que se hubiera presentado el recurso, podrá recabar los informes necesarios y oír a las personas cuyos derechos o intereses legítimos pudieran resultar afectados por su eventual estimación.

9.2. Sin mayor dilación, el órgano ante el que se hubiera presentado el recurso lo elevará a la Junta Electoral, junto con el expediente original, las alegaciones presentadas por los interesados, y su propio informe.

## IV. KAPITULUA
## BATZAR NAGUSIRAKO HAUTAGAIAK ETA INPUGNAZIOAK

**10. artikulua: Batzar Nagusiko kide izateko hautagaien betekizunak.**

Bizkaiko Mendizale Federazioaren Batzar Nagusiko kide izan ahal izateko honako baldintza hauek bete behar dira:

10. 1. Hauteskundeak egingo diren egunean hamazortzi (18) urte beteta izatea.

10. 2. Pertsona fisikoen kasuan, administrazio-egoitza Bizkaian izatea; pertsona juridikoen kasuan, sozietatearen helbidea Bizkaian izatea.

10.3. Epailearen erabaki irmo bidez ezgaitutzat ez jotzea.

10.4. Kirol-diziplinako zuzengarri larri baten ondorioz gaitasungabetuta ez egotea.

10.5. Hautagai izateko nahia hauteskunde araudian ezartzen denaren arabera aurkeztea.

## CAPITULO IV
## CANDIDATURAS A LA ASAMBLEA GENERAL E IMPUGNACIONES

**Artículo 10: Requisitos de los Candidatos a miembros de la Asamblea General.**

Para poder ser miembro de la Asamblea General de la Federación Bizkaina de Montaña deberán reunirse los siguientes requisitos:

10. 1 Haber alcanzado la edad de dieciocho (18) años el día de las elecciones.

10. 2. Poseer la vecindad administrativa en Bizkaia si se trata de personas físicas o tener el domicilio social en Bizkaia, si se trata de personas jurídicas.

10.3. No haber sido declarado incapacitado por decisión judicial firme.

10.4. No estar sujeto a corrección disciplinaria grave de carácter deportivo que le inhabilite.

10.5. Presentar la candidatura conforme a lo dispuesto en el reglamento electoral.

a) Kargu publikoa betetzeko gaitasungabetzea dakarren epai irmo bidez kondenatua ez izatea.

a) No haber sido condenado mediante sentencia judicial firme que conlleve inhabilitación para ostentar cargo público.

b) Hauteskunde Batzordeko edo Hauteskunde Mahaiko kide ez izatea.

b) No ser miembro de la Junta Electoral ni de la Mesa Electoral.

c) Hautagaiaren estamentuari dagokion hautesle-erroldako atalean agertzea edo behar bezala erroldatuta dagoen entitate baten ordezkari izatea.

c) Figurar en la sección del censo electoral del estamento correspondiente o ser representante de una entidad que figure debidamente censada.

**11. artikulua: Hautagaiak aurkeztea.**

**Artículo 11: Presentación de candidaturas**

11.1 Hautagai izateko nahia aurkezteko, hautagaiak berak izenpetutako idazki bat aurkeztu behar du hautagaiak (sinadura ondo irakurtzeko modukoa izan behar da eta NAN zenbakia ere adierazi behar du), Hauteskunde Batzordeari zuzenduta. Idazkia Bizkaiko Mendizale Federazioko idazkari nagusiari eman edo posta ziurtatu bidez bidali behar zaio, hauteskunde-egutegian zehazten den epearen barruan. Idazkian bertan hauek adierazi behar dira: zitazio eta jakinarazpenetarako helbidea, harremanetarako telefonoa eta jaiotze-data, bai eta zein estamentu ordezkatuz aurkezten den hautagai ere. Horrekin guztiarekin batera, NANaren kopia ere aurkeztu behar da.

11.1 La presentación se realizará mediante escrito firmado (con pie de firma legible y número de DNI) por el propio candidato o candidata y dirigido a la Junta Electoral, y se entregará o enviará por correo certificado a la Secretaría General de la Federación Bizkaina de Montaña en el plazo previsto en el Calendario Electoral, indicando domicilio a efectos de citaciones y notificaciones, teléfono de contacto y fecha de nacimiento, así como el estamento por el que presenta su candidatura. Se acompañará copia del D.N.I.

11.2 Hautagaia kirol klub edo elkarte bat bada, klub edo elkarte horren estatutuen arabera erakundearen ordezkari denak izenpetu behar du idazkia.

11.2 Si se tratare de un club o agrupación deportiva el escrito deberá ser suscrito por su quien ostente su representación de acuerdo a sus propios estatutos.

11.3 Hautagaiek gehienez ere Batzar Nagusirako kandidatura bana (1) aurkez dezakete.

11.3 Ningún candidato podrá presentar más de una (1) candidatura a la Asamblea General.

11.4 Kandidatura bat aurkezten denean, Bizkaiko Mendizale Federazioko idazkariak eginbidea instruitu behar du; bertan, kandidatura aurkeztu den eguna jasoko da eta erreziboa emango zaio aurkezleari.

11.4 En el momento de presentarse una candidatura, el Secretario o Secretaria de la Federación Bizkaina de Montaña extenderá una diligencia en la que conste su fecha de presentación expidiendo recibo a favor del presentador de la misma.

11.5 Hauteskunde Batzordeak bost (5) egun naturaleko epea dauka hautagaien behin-behineko zerrendak aurkezteko; horretarako, Bizkaiko Mendizale Federazioaren iragarki-oholean argitaratuko ditu estamentu bakoitzaren zerrendak.

11.5 La Junta Electoral publicará las listas provisionales de candidatos en el plazo de cinco (5) días naturales, mediante la exposición de las correspondientes a cada Estamento, en el tablón de anuncios de la Federación Bizkaina de Montaña.

11.6 Hautagaien behin-behineko zerrenden aurkako inpugnazioak Bizkaiko Mendizale Federazioan aurkeztu behar dira; horretarako, zuzenean bertara joan daiteke, idazkia zuzendu dakioke Hauteskunde Batzordeari edo, bestela, inpugnazioak faxez edo posta bidez bidal dakioke Bizkaiko Mendizale Federazioaren Idazkaritza Nagusiari, egutegiko bi (2) eguneko epean.

11.6 Las impugnaciones contra las listas provisionales de candidatos/as se presentaran en la Federación Bizkaina de Montaña, personalmente, por escrito dirigido a la Junta Electoral, o mediante fax o envío por correo a la Secretaria General de la Federación Bizkaina de Montaña , en el plazo de dos (2) días hábiles.

11.7 Kandidaturak behin-behinean aurkez daitezke horretarako epea zabalik dagoenean eta ustez hautagai izateko eskakizunak ez betetzearen aurkako errekurtso bat ebatzi gabe balego.

11.7 Se admitirá la presentación de candidaturas con carácter provisional cuando se encuentre abierto el periodo para ello y se encuentre pendiente de resolución un recurso contra la presunta carencia de requisitos para ser candidato/a.

11.8 Hautagaien behin-behineko aldarrikapena behin betiko egingo da automatikoki, hautaketaren aurka epe barruan aurkeztutako errekurtsorik ez badago.

11.8 La proclamación provisional de candidatos/as electos se elevará automáticamente a definitiva cuando no existan recursos en plazo contra la elección.

11.9 Inpugnaziorik egonez gero, Hauteskunde Batzordeak ebatzi behar ditu, hauteskunde-egutegian jasota dauden epeetan. Hori egin ondoren, zerrendak behin betiko onetsiko ditu, hautagaiak aldarrikatuko ditu eta hautagaien behin betiko zerrendak Bizkaiko Mendizale Federazioaren iragarki-oholean argitaratuko ditu, bai eta Bizkaiko Mendizale Federazioaren web gunean ere, horrelakorik egonez gero.

11.9 En el supuesto de existir impugnaciones la Junta Electoral resolverá las mismas en los plazos previstos en el calendario electoral, a partir de lo cual aprobará definitivamente las listas, proclamando a los candidatos o candidatas y exponiendo las listas definitivas de candidatos o candidatas en el tablón de anuncios de la Federación Bizkaina de Montaña, así como en la hoja web de la Federación Bizkaina de Montaña, si la hubiere.

11.10 Batzar Nagusiko kide hautatu batek kide hautatzeko zeukan izaera galduz gero, automatikoki baja emango zaio Batzar Nagusian.

11.10 Si un miembro electo de la Asamblea General perdiera la condición por la que fue elegido causará baja automáticamente en aquella.

11.11 Estamentu batean dagoen hautagai kopurua ez balitz estamentu horri dagokion ordezkari kopuruaren bestekoa, bete ezin diren ordezkari postu horiek modu proportzionalean banatuko lirateke gainerako estamentuen artean.

11.12 Estamentu jakin batean dagoen hautagai kopurua estamentu horri esleitutako ordezkari kopuruaren bestekoa edo txikiagoa bada, ez da bozketarik egin behar estamentu horretan, eta Hauteskunde Batzordeak hautagaiak aldarrikatuko ditu.

**12. artikulua: Interbentoreak.**

12.1. Hautagaiek ahalordea eman diezaiokete edozein pertsonari hauteskundeetan bere ordezko jardun dezan, interbentore moduan, baldin eta ahalordetzen den pertsona adin nagusia bada eta ahal eta eskubide guztiak oso-osorik baditu.

12.2. Ahalordetzea notarioaren aurrean edo Bizkaiko Mendizale Federazioaren idazkariaren aurrean egin behar da; horretarako, ahalordea egiten duen hautagaia eta ahalordetuko den pertsona bertaratu behar dira.

12.3. Interbentoreek interbentore direla egiaztatu behar dute Hauteskunde Batzordearen aurrean; horretarako, honako hauek aurkeztu behar dituzte: ahalordea eta NANa, pasaportea edo horien pareko identifikazio-agiria. Interbentoreak bozketa egiten den tokian egon daitezke bozketa eta boto-zenbaketa egiten diren bitartean.

12.4. Interbentoreek egin behar duten gauza bakarra bozketa eta boto-zenbaketa zelan egiten diren begiratzea da. Nolanahi ere, eskubidea izango dute bozketa eta zenbaketa egiteko moduari buruzko egoki irizten dizkieten adierazpenak egiteko eta adierazpenok aktan jasota gera daitezen eskatzeko.

11.11 En el supuesto de que la totalidad de los candidatos o candidatas de un estamento no permita alcanzar el mínimo de representación asignado al mismo, las vacantes se atribuirán proporcionalmente al resto de los estamentos.

11.12 En el supuesto de que en un determinado estamento exista un número igual o inferior de candidatos o candidatas al de representantes asignados al mismo, no será necesario efectuar la votación por dicho estamento, procediendo la Junta Electoral a proclamar a dichos candidatos.

**Artículo 12: Los o las Interventores/as.**

12.1. Los candidatos o candidatas podrán otorgar poder a favor de cualquier persona, mayor de edad y en plenitud de sus facultades y derechos, para que ostente su representación en los actos electorales, en calidad de interventor.

12.2. El apoderamiento deberá realizarse ante Notario o ante el Secretario/a de la Federación Bizkaina de Montaña, mediante comparecencia del candidato otorgante y de la persona a quien se vaya a apoderar.

12.3. Los o las interventores deberán acreditar su condición ante la Mesa Electoral mediante la exhibición del apoderamiento y del D.N.I., pasaporte o documento identificativo análogo, permitiéndoseles permanecer en el local donde se desarrollen la votación y el escrutinio.

12.4. Los o las interventores se limitarán a presenciar los actos de votación y escrutinio, con derecho a formular las manifestaciones que considere oportunas sobre el desarrollo de tales actos y a que se recojan en el correspondiente acta.

## V. KAPITULUA
## HAUTESKUNDEAK EGITEA

**13. artikulua: Hauteskunde Mahaia.**

13.1. Osaera eta eginkizunak: Hauteskunde Mahaia da bozketa eta boto-zenbaketa zuzen egiten direla zaintzeko ardura daukan organoa; honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Bozketa bakoitza ondo egiten dela zaintzea: boto-emaileen nortasuna egiaztatuko du eta boto-emaileak hautesle direla ere bai.

b) Emandako botoak baliozkoak diren ala ez erabakitzea.

c) Botoak zenbatzea.

d) Bozketarekin eta boto-zenbaketarekin zerikusia duten gainerako inguruabarrak konpontzea.

e) Bozketa egiten den lekuan hautagaien aldeko propagandarik egon dadila saihestea.

13.2. Bizkaiko Mendizale Federazioan egoitzan Hauteskunde Mahai bakarra eratuko da Federazioan urte olinpiko bakoitzean egingo diren hauteskunde-prozesu guztietarako.

13.3. Hauteskunde Mahaiak hiru kide izango ditu: kirol klub eta elkarteen estamentuko bat, kirolarien estamentuko bat eta epaileen edo teknikarien estamentuko beste bat. Kide titular bakoitzeko ordezko bana aukeratuko da; ordezkoa titularraren estamentu berekoa izan behar da.

13.4. Hauteskunde Mahaiko kideak ezin dira izan ez Batzar Nagusirako hautagai ez Bizkaiko Mendizale Federazioaren Lehendakaritzarako hautagai; hortaz,

## CAPITULO V
## CELEBRACION DE LAS ELECCIONES

**Artículo 13: La Mesa Electoral.**

13.1 Composición y Funciones.: La Mesa Electoral es el órgano encargado de velar por el correcto desarrollo de las fases de votación y escrutinio, ejerciendo las siguientes funciones:

a) Velar por el correcto desarrollo de cada votación, comprobando la identidad de los votantes y su condición de electores.

b) Resolver sobre la validez de los votos emitidos.

c) Efectuar el escrutinio de los votos.

d) Resolver cualquier otra incidencia relacionada con las votaciones y con el escrutinio.

e) Evitar que en el local de la votación se realice propaganda de ningún género en favor de los candidatos.

13.2. Se constituirá una única Mesa Electoral en la sede de la Federación Bizkaina de Montaña para todos los procesos electorales que se efectúen en su seno durante cada año olímpico.

13.3. La Mesa Electoral estará formada por tres miembros, uno de los cuales deberá pertenecer al estamento de clubes y agrupaciones deportivas, otro al estamento de deportistas y el tercero al de jueces-juezas o técnicos/as. Por cada miembro titular se elegirá un suplente, debiendo corresponder al mismo estamento que el titular.

13.4. Dado que los miembros de la Mesa Electoral no pueden ser candidatos ni a la Asamblea General, ni a la Presidencia de la Federación Bizkaina de Montaña, la

Hauteskunde Batzordeak Batzar Nagusirako behin betiko hautagaiak nortzuk diren ezagututakoan, zozketa garbia egingo du hautagai aurkeztu ez diren baina erroldan dauden hautesleen artean, Hauteskunde Mahaia nortzuk osatuko duten erabakitzeko.

Junta Electoral, una vez conocidos los candidatos o candidatos definitivos a la Asamblea General, establecerá mediante sorteo puro los integrantes de la Mesa Electoral entre los electores incluidos en el censo que no se hayan presentado.

13.5. Hauteskunde Mahaiko kideek kargua onartu behar dute. Nolanahi ere, federatuek ez dute kargua onartu behar, baldin eta behar bezala frogatzen badute laneko, familiako eta osasun arloko arrazoiak zein arrazoi akademikoak eta antzekoak direla-eta karguak dakartzan eginkizunak betetzeko ezinduta daudela. Baldintza horiek betez gero, karguari uko egiten dioten kideek ez dute diziplinazko erantzukizunik izango.

13.5. Los miembros de la Mesa Electoral deberán aceptar el cargo, quedando dispensados de dicha obligación y exentos de responsabilidad disciplinaria aquellos federados que por probadas razones laborales, familiares, académicas, de salud o análogas se encuentren impedidos para cumplir adecuadamente sus funciones.

13.6. Hauteskunde Mahaiko kide titular posturen bat hutsik egonez gero, leku hori ordezko batek hartuko du; ordezkoa titularraren estamentu berekoa izan behar da.

13.6. Las vacantes que se produzcan entre los miembros titulares de la Mesa Electoral serán cubiertas por los miembros suplentes, según el estamento correspondiente al titular que faltare.

13.7. Hauteskunde Mahaiko kideen artean ez da, inolaz ere, Biltzar Orokorrean, Zuzendaritza Batzordean edo Presidentzian hautagai gisa aurkeztuko den inor izango. Debeku horrek indarra izango du, baita hauteskunde-organo horretan dimisioa eman ondoren ere.

13.7. Las personas que ejerzan como miembros de la Mesa Electoral no pueden ser candidatos en los procesos de elección de la Asamblea General, Junta Directiva o Presidencia. Esta prohibición subsistirá aunque dimitan después los miembros de tal órgano electoral.

13.8. Hauteskunde Mahaiak Bizkaiko Mendizale Federazioaren idazkari nagusiaren laguntza izango du eta, halakorik egonez gero, aholkulari juridikoarena ere bai. Hauteskunde Batzordeko kideek ordainsariak jaso behar dituztela erabaki dezake Bizkaiko Mendizale Federazioaren Batzar Nagusiak, betiere kideok izendatu aurretik.

13.8. La Mesa Electoral estará asistida por el Secretario General y el Asesor Jurídico de la Federación Bizkaina de Montaña, si lo hubiere. Sus miembros podrán ser remunerados si así lo acuerda la Asamblea General de la Federación Bizkaina de Montaña previamente a su designación.

13.9. Funtzionamendua: Hauteskunde Mahaia balio osoz eratzeko, gutxienez kide bi bertaratu behar dira. Kide titularrak bertaratu ezean, ordezkoak joan behar dira haien lekuan, zozketan izandako

13.9. Funcionamiento.: Para su válida constitución se necesitará la presencia de al menos dos de sus miembros. De no acudir los miembros titulares deberán ser sustituidos por los suplentes de acuerdo

hurrenkeraren eta ordeztu behar duten kidearen estamentuaren arabera.

a su posición en el sorteo y al estamento al que pertenece el miembro que deban suplir.

13.10. Ordezko kideak joan arren ere gutxienez ez balira pertsona bi egongo, falta direnen lekua falta direnen estamentukoen artetik botoa ematera doazen lehenengo hautesleek beteko lukete, baldin eta hautagaiak ez balira.

13.10. En el supuesto de que con los miembros suplentes tampoco se llegara al mínimo de dos personas, las ausencias serán cubiertas por los primeros electores, no candidatos, que se presenten a votar y pertenezcan a los estamentos ausentes.

13.11. Bozketa egiten den lekuan dauden Mahaiko kideen artetik zaharrenak beteko ditu Hauteskunde Mahaiko lehendakari lanak, eta botoetan berdinketa badago, bere botoak erabakiko du; bertan dauden Mahaiko kideen artetik gazteena izango da idazkari.

13.11. La Mesa Electoral estará presidida por el componente de mayor edad que se encuentre presente, cuyo voto será dirimente en caso de empate, y actuará como Secretario o Secretaria el más o la más joven de los demás componentes presentes.

13.12. Mahaiko kideak bozketa egunerako jarritako ordua baino ordu erdi lehenago batuko dira, bozketarako jarrita dagoen lekuan; Bizkaiko Mendizale Federazioko kide baten laguntza izango dute, eta kide horrek emango dizkie Mahaiak funtzionatzeko behar dituen baliabide guztiak.

13.12. Sus miembros se reunirán media hora antes de la acordada para el día de la votación en el local fijado al efecto, estando asistidos por un miembro de la Federación Bizkaina de Montaña, quien les proveerá de los recursos necesarios para su funcionamiento.

13.13. Hauteskunde Mahaiak hartzen dituen erabakiak Bizkaiko Mendizale Federazioaren iragarki-oholean argitaratuko dira eta web gunean ere bai, horrelakorik egonez gero; horrezaz gain, interesdun guztiei ere jakinarazi behar zaizkie, ahal izanez gero.

13.13. Los acuerdos que adopte la Mesa Electoral serán publicados en el tablón de anuncios de la Federación Bizkaina de Montaña y en su página web, si existiere, debiendo ser notificados a los interesados si ello fuere posible.

13.14. Erabakiak Hauteskunde Mahaiaren aurrean errekurri daitezke; horretarako egutegiko bi (2) eguneko epea dago, erabakia jakinarazi edo, horrela egin bada, argitaratu den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

13.14. Tales acuerdos serán recurribles ante la Junta Electoral en el plazo de dos (2) días hábiles, a contar desde el día siguiente a su notificación, o en su caso, publicación.

13.15. Hauteskunde Mahaiko idazkariak Mahaia Eratzeko Akta prestatuko du, eta Hauteskunde Batzordeak onetsitako aktaren eredu ofizialean eskatzen diren datu guztiak bete behar ditu. Akta hori Mahaiko kide guztiek izenpetu behar

13.15. El Secretario o Secretaria de la Mesa Electoral elaborará el Acta de Constitución de la Mesa cumplimentando todos y cada uno de los extremos solicitados en el formato oficial aprobado por la Junta Electoral, debiendo ser

dute.

firmada por todos los miembros de la Mesa.

**14. artikulua: Botoa emateko prozedura.**

14.1. Bozketa estamentuka egingo da; horretarako, bozketa egingo den lekurako sarreran, hauteskunde-txartel eta gutun-azal ofizialak egongo dira hautesleen eskura. Estamenturen batean estamentu horretan bete beharreko plazak beste hautagai aurkezten badira, ez da inolako hautaketarik egin beharko.

14.2. Federazioko estamentu bakoitzeko hautesleek nor diren egiaztatu behar dute; horretarako, NANa, pasaportea edo horien pareko identifikazio-agiria aurkeztu behar diote Hauteskunde Mahaiari. Kirol klub edo elkarteen kasuan, lehendakariak edo behar bezala baimendutako ordezkari batek eman dezake botoa. Baimena duela erakusteko, entitateko idazkariak emandako ziurtagiria aurkeztu behar dute; ziurtagiriak entitateko lehendakariaren oniritzia behar du eta entitatearen legezko ordezkaria edo bozketarako ahalordea duena nor den ziurtatu behar du. Ziurtagiri horrezaz gain, nortasuna egiaztatzeko agiria ere aurkeztu behar du.

14.3. Pertsona fisikoek ezin dute botoa eskuordetu edo botoa emateko ahalorderik eman.

14.4. Mahaiko idazkariak erroldan bertan adierazi behar du nork eman duen botoa.

14.5. Hauteskunde-txartel ofiziala Mahaiko lehendakariari eman behar zaio. Lehendakariak, ondoren, berariaz prestatutako hautestontzi itxi batean sartuko du, kasu bakoitzean dagokion estamentuaren hautestontzian, hain zuzen, estamentu bakoitzeko hautestontzi bana erabiliko baita. Teknikarien eta epaileen estamentuan, aldiz, hautestontzi

**Artículo14: Procedimiento de votación.**

14.1. La votación se efectuará por estamentos, para lo que a la entrada del local donde se celebren las votaciones existirá una mesa con los sobres y papeletas oficiales a disposición de los electores. En el supuesto de que en un estamento se presentare un número de candidatos igual al de plazas a elegir no será necesaria la realización de elección en el seno de dicho estamento.

14.2. Cada elector de los diversos estamentos federativos deberá acreditar su personalidad con la presentación ante la Mesa Electoral de su DNI, pasaporte, permiso de conducción u otro documento análogo que lo identifique. Por los Clubes o agrupaciones deportivas podrá votar su Presidente o un representante debidamente autorizado, provisto de una certificación expedida por el Secretario de la entidad con el Visto Bueno del Presidente, acreditativa de quien ostenta la representación legal de la entidad o de quien se encuentre apoderado para las votaciones, además del documento con el que acredite su personalidad.

14.3. No se permitirá delegación o representación alguna para el ejercicio del voto para personas físicas.

14.4. El Secretario o Secretaria de la Mesa señalará en la lista del censo a los que ejerciten el voto.

14.5. La papeleta oficial de voto será entregada al Presidente o Presidenta de la Mesa, quien la depositará en una urna cerrada y preparada a tal efecto, correspondiente al estamento del votante, dado que se utilizarán tantas urnas como estamentos existen. El estamento de técnicos/as y Jueces-Juezas utilizará dos urnas diferentes.

bi erabiliko dira.

14.6. Botoa berdina izango da, askea eta sekretua. Botoa emateko, Hauteskunde Batzordeak emandako txartel ofiziala erabili behar da; bertan, hautesle bakoitzak markatu egin behar du estamentu bakoitzeko postuak betetzeko onartu diren hautagaien artean nahiago duena edo dituenak.

14.6. El voto será igual, libre y secreto, debiéndose efectuar mediante papeleta oficial proporcionada por la Junta Electoral, en la que se marcará el (o los) nombre(s) de su preferencia entre los candidatos aceptados para cubrir los puestos de cada uno de los estamentos.

14.7. Hautesle bakoitzak hauteslearen estamenturako hautatu daitezkeen hautagaien beste boto eman dezake txartel bakarrekin. Hauteslearen estamenturako aurkezten diren hautagaien aldeko botoa bakarrik eman daiteke.

14.7. Cada elector podrá votar en su papeleta como máximo a tantos candidatos o candidatas como representantes sean elegibles por el estamento al que pertenezca. Los votos solo podrán emitirse en favor de los candidatos o candidatas que se presenten por el estamento que corresponda al elector.

14.8. Bozketa, etenik gabe, ordu biz (2) luzatuko da. Hauteskunde Batzordeak bozketa amaitzeko jarritako orduan, Hauteskunde Mahaiko lehendakariak ozenki iragarriko du bozketa amaitu egingo dela eta galdetuko du hautesletakoren batek oraindik botorik eman ez duen. Oraindik botorik eman ez dutenek botoa eman dezatela onartuko du, baina ez dio beste inori bozketa egiten den lekura sartzen utziko.

14.8. El acto de la votación durará, de forma ininterrumpida, al menos dos (2) horas. A la hora fijada como de finalización de las votaciones por la Junta Electoral el Presidente o Presidenta de la Mesa Electoral anunciará en voz alta que va a concluir la votación y preguntará si algunos de los electores presentes no ha votado todavía, admitiendo el voto de los que no lo hubieran emitido aun y no permitiendo entrar a nadie más en el local.

**15. artikulua: Posta bidezko botoa.**
Ezein kasutan ez da onartua izango posta bidezko botoa.

**Artículo 15: El voto por correo**
En ningún caso será admisible el voto por correo.

**16. artikulua: Hauteskunde Mahaiko kideen botoa.**
16.1. Jarraian, hautesle diren interbentoreek, mahaikideek, idazkariak eta, azkenik, Mahaiko lehendakariak emango dute botoa.

**Artículo 16: Voto de los Componentes de la Mesa Electoral.**
16.1. Seguidamente votarán los Interventores que tengan la condición de elector, el o la Vocal, el Secretario o Secretaria y por ultimo el Presidente o Presidenta de la Mesa.

**17. artikulua: Botoak zenbatzea.**
17.1. Bozketa amaitutakoan, Hauteskunde Mahaiko lehendakariak itxitzat joko du eta boto-zenbaketa hasiko

**Artículo 17: Recuento de votos**
17.1. Finalizada la votación el Presidente o Presidenta de la Mesa Electoral declarará cerrada la misma y comenzará

da.

el escrutinio.

17.2. Idatziz jaso behar da botoak baliodunak, baliogabeak eta zuriz emandakoak diren, bakoitza bere aldetik, Kulturako Sailburuaren otsailaren 19ko Aginduaren 51. artikuluak ezarritakoaren arabera.

17.2. Se irán anotando por separado los votos validos, nulos y en blanco emitidos, de acuerdo con el artículo 51 de la Orden de 19 de febrero de 2012, de la Consejera de Cultura.

17.3. Postu bakoitzerako boto gehien jaso duen hautagaia izango da irabazle.

17.3. Resultará ganadora la candidatura que hubiere obtenido el mayor número de votos para el puesto de que se trate.

17.4. Boto-emaileen kopurua boto-emaileen txartelen kopurua bera izan behar da, boto baliodunak, baliogabeak eta zuriz emandakoak, guztiak, kontuan hartuta.

17.4. El número de votantes será igual al número de papeletas de votantes, incluidos los votos validos, nulos y en blanco.

17.5. Botoa eman duten hautesleen izenak markatuta dauzkaten hautesle-erroldak izenpetuko dituzte lehendakariak, idazkariak, mahaikideak eta interbentore guztiek, orri guztien bazterrean eta markatuta dagoen azken izenaren azpi-azpian.

17.5. El Presidente o Presidenta, el Secretario o Secretaria, y el o la Vocal, así como todos los Interventores firmarán las listas del censo de votantes señalados, al margen de todos sus pliegos e inmediatamente debajo del último nombre escrito señalado.

17.6. Aurreko eragiketa horiek guztiak bukatuta, idazkariak akta idatziko du, bikoiztuta. Akta hori lehendakariak, idazkariak berak, mahaikideak eta interbentore guztiek izenpetu behar dute.

17.6. Una vez concluidas las anteriores operaciones, el Secretario o Secretaria redactará, por duplicado, la correspondiente acta, que deberá ser firmada por el Presidente o Presidenta, el propio Secretario o Secretaria, el o la Vocal y todos los Interventores.

17.7. Hauteskunde Mahaiak botoa eman den tokian bertan erakutsiko ditu lortutako emaitzak, ikusteko moduko lekuan.

17.7. La Mesa Electoral expondrá en lugar visible del local los resultados obtenidos.

**18. artikulua: Akta ematea.**

18.1 Mahaiak hauteskundeei buruzko agiri guztiak prestatuko ditu eta gutunazal bitan banatuko ditu.

**Artículo 18: Entrega del Acta**

18.1 La Mesa procederá a la preparación de la documentación electoral, que se distribuirá en dos sobres separados.

18.1.1. Lehenengo gutunazalean honako hauek jasoko dira:

18.1.1. El primero contendrá:

1.- Mahaia Eratzeko jatorrizko Akta.

1.- Original del Acta de Constitución de la Mesa.

2.- Hautaketaren jatorrizko Akta, egiaztatuta.

2.- Original del Acta de la Elección verificada.

3.- Botoa emateko eskubidea erabili duten hautesleak markatzeko erabili diren erroldak.

3.- Censos utilizados en los que se señalaron los votantes que ejercieron su derecho.

4.- Balioa kendu zaien boto-txartelak, hau da, baliogabetzat jo direnak edo erreklamazioren baten pean daudenak.

4.- Las papeletas de votación a las que se les hubiera negado validez, es decir, aquellas declaradas nulas o que hubieran sido objeto de alguna reclamación.

18.1.2. Bigarren gutunazalean honako hauek jasoko dira:

18.1.2 El segundo sobre contendrá:

1.- Mahaia Eratzeko Aktaren kopia.

1.- Copia del Acta de Constitución de la Mesa

2.- Hautaketaren Akta egiaztatuaren kopia.

2.- Copia del Acta de Elección verificada

18.2 Agiri guztiak prestatu ondoren, lehendakariak eta idazkariak, mahaikidearekin eta hala nahi duten interbentoreekin batera, arestian aipatutako agiriok emango dizkiote Bizkaiko Mendizale Federazioko idazkariari. Azken horrek zaindu egingo ditu, Hauteskunde Batzordeari eman bitartean. Bigarren gutunazala, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzara bidali behar dute.

18.2 Preparada la documentación, el Presidente o Presidenta y el Secretario o Secretaria acompañados del o de la Vocal, así como de los Interventores que lo deseen, harán entrega de la misma al Secretario o Secretaria General de la Federación Bizkaina de Montaña, quien la custodiará hasta su entrega a la Junta Electoral, remitiendo el segundo sobre a la Dirección de Deportes de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia.

**19. artikulua: Emaitzak aldarrikatzea**

**Artículo 19: Proclamación de Resultados**

19.1. Bozketa egin osteko lehenengo egun baliodunean, jaso dituen botoak zenbatuko ditu Hauteskunde Batzordeak, eta Bizkaiko Mendizale Federazioko Batzar Nagusirako hautagaiak aukeratzeko hauteskundeen behin-behineko emaitzak aldarrikatuko ditu.

19.1. El día siguiente hábil tras de la fecha en la que se hubiere efectuado las votaciones, la Junta Electoral realizará el recuento de las votaciones recibidas y proclamará los resultados provisionales de la elección a miembros de la Asamblea General de la Federación Bizkaina de Montaña.

19.2. Estamentu bakoitzean hautatu beharreko postuetarako emandako boto baliodunen gehiengo soila lortu duten hautagaiak izango dira irabazle.

19.2. Resultarán ganadoras las candidaturas que hubieren obtenido la mayoría simple de los votos válidos para los puestos que por cada estamento salgan a elección.

19.3. Boto-berdinketa gertatuz gero,

19.3. En caso de empate de votos

emakumeak buru dituen hautagai-zerrenda izango da irabazlea. Berriro ere berdinketa gertatzen bada, federazioan antzinatasun handiena duen pertsona edo entitatea izango da irabazlea.

resultarán elegidas las candidaturas encabezadas por mujeres. Si persiste el empate, resultará elegida la persona o entidad que tenga mayor antigüedad en la Federación.

Berdinketak bere horretan segitzen badu, Hauteskunde Batzordeak zozketa bat egingo du, berdinduta dauden hautagai-zerrenden artean.

Si nuevamente persiste el empate, la Junta Electoral procederá a un sorteo entre las candidaturas empatadas.

19.4. Emaitzak ezagututakoan, estamentu bakoitzean aukeratutako hautagaiak aldarrikatuko ditu Hauteskunde Batzordeak.

19.4. Una vez conocidos los resultados, la Junta Electoral proclamará los candidatos electos por cada estamento.

19.5. Batzar Nagusirako ordezkari hautatu dituzten klubek eta erakundeek, lehenengo Batzar Nagusia egin baino lehen, Hauteskunde Batzordeari jakinarazi behar diote nork ordezkatuko dituen Batzar Nagusiaren aurrean. Ordezkari izango denak honako baldintza hauek bete behar ditu:

19.5. Los Clubes y Organizaciones que resulten elegidos representantes en la Asamblea General deberán notificar a la Junta Electoral, antes de la celebración de la primera Asamblea General, el nombre de la persona que le represente en la misma, que deberá reunir los siguientes requisitos:

a) Lehendakariak edo baimendutako pertsonak sinatutako agiria aurkeztea, ordezkaria izendatzeko dena.

a) Presentar escrito firmado por el Presidente o persona autorizada, nombrándole representante del mismo.

b) Ordezkaritza egikarituko den egunean adin nagusia izatea.

b) Haber alcanzado la mayoría de edad el día que ejecute la representación.

c) Kargu publikoa betetzeko gaitasungabetzea dakarren epai irmo bidez kondenatua ez izatea.

c) No haber sido incapacitado por decisión judicial firme que conlleve inhabilitación para ostentar cargo público.

d) Gaitasungabetzea dakarren kirol-diziplinako zuzengarri larri baten menpe ez egotea.

d) No estar sujeto a corrección disciplinaria grave de carácter deportivo que inhabilite.

**20. artikulua: Gatazkak eta erreklamazioak.**

20.1. Aldarrikatutako emaitzen aurkako erreklamazioak zuzenean Hauteskunde Batzordeari aurkeztu behar zaizkio, Batzar Nagusiko kideen behin-behineko aldarrikapena egin den egunetik aurrera egutegiko bi (2) eguneko epean; erreklamazioak Federazioaren egoitzan aurkeztu behar dira.

**Artículo 20: Conflictos y Reclamaciones.**

20.1. Las reclamaciones contra los resultados proclamados se realizarán directamente a la Junta Electoral, dentro del plazo de dos (2) días hábiles a contar desde la fecha de proclamación provisional de los miembros de la Asamblea General, debiendo presentarse en la sede federativa.

20.2. Bozketan zehar gertatutakoa dela-eta aurkeztutako erreklamazioak eta inpugnazioak idatziz aurkez daitezke Hauteskunde Mahaian; idazkiaren azkenean IDAZKIAK JARRAITZEN DU jarri behar da, letra larriz eta azpimarratuta.

20.2. Las reclamaciones e impugnaciones relacionadas con el curso de las votaciones podrán presentarse por escrito en la Mesa Electoral poniendo al final del mismo con letras mayúsculas y subrayado SIGUE ESCRITO.

20.3. Aurreko puntuan aipatzen diren erreklamazioen zabalkundea Hauteskunde Batzordean jaso behar da, araudi honetako 20.1. artikuluan zehazten denarekin bat.

20.3. La ampliación de las reclamaciones a que se refiere el punto anterior, deberán recibirse en la Junta Electoral, conforme señala el punto 20.1 de este reglamento.

20.4. Hauteskunde Batzordeak lau (4) egun naturaleko epea dauka ebazpena emateko, araudi honetako 8.1. artikuluan zehazten denarekin bat.

20.4. La Junta Electoral vendrá obligada a adoptar las resoluciones dentro del plazo de cuatro (4) días naturales señalado en el artículo 8.1 de este reglamento.

20.5. Hauteskunde Batzordeak erabakitzen duenaren aurka erreklamaziorik aurkeztu nahi bada, erreklamazioa Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean egin behar da egutegiko zazpi (7) eguneko epean.

20.5. Las reclamaciones contra lo que decida, en su caso, la Junta Electoral, son recurrible ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el plazo de siete (7) días hábiles.

**21. artikulua: Bajak eta hutsik dauden postuak ordezkatzeko sistemak eta epeak.**

**Artículo 21: Sistemas y plazos para la sustitución de bajas y vacantes.**

21.1. Batzar Nagusirako hurrengo hauteskunde orokorren aurretik hutsik Batzar Nagusian geratzen diren postuak baja gertatzen den estamentuan Batzar Nagusirako kideak aukeratzeko hauteskundeetan hautatu ez ziren hautagaien artean boto gehien lortu zuen entitateek (klub edo elkarteek) edo pertsonek (kirolari, teknikari edo epaileek) beteko dituzte.

21.1. Las vacantes que se produzcan en la Asamblea General antes de las siguientes elecciones generales a la misma, serán cubiertas por la entidad (Club o Agrupación) o persona (Deportista, Técnico/a o Juez-Jueza) del estamento donde se produzca la baja, y que, durante las elecciones a miembros de la Asamblea General, hubieran obtenido el numero máximo de votos, entre los que no resultaron elegidos para la citada Asamblea.

21.2. Aurreko paragrafoan adierazten diren postu hutsak betetzeko hautatzen direnek Batzar Nagusirako hurrengo hauteskunde orokorretara arte geratzen den denboraz besteko agintaldia izango dute.

21.2. Los elegidos o elegidas para cubrir las vacantes a las que se refiere el párrafo anterior, ostentarán un mandato por el tiempo que falte hasta las próximas elecciones generales de la Asamblea General.

21.3. Ordezkapenak gehienez ere

21.3. Las sustituciones se efectuarán en

hamabost (15) eguneko epean egin behar dira, postu bat hutsik geratu dela jakiten denetik. Epe horren barruan, Bizkaiko Mendizale Federazioko idazkariak horren guztiaren berri emango dio Hauteskunde Batzordeari batzordeak kide berria aldarrika dezan eta erabakia jakinaraz diezaion.

el plazo máximo de quince (15) días a partir ser conocida la vacante existente, periodo en el que el Secretario o Secretaria General de la Federación Bizkaina de Montaña comunicará tal circunstancia a la Junta Electoral a fin de que por ésta se proclame al nuevo miembro y le notifique la decisión.

